

# Landareak

Jakoba Errekondo

## Irakurleak galdezka

Kaixo, Jakoba. Baserrian iaz atera genituen insignis pinudiak. Orain, garbiketa lanak egin ondoren landaketa berriak egin beharrean gaude. Sekuoia, Douglas izeia eta kriptomeria japoniarra gomendatu dizkigute. Ez dakit egokiak diren edo interes batzuei erantzuten dien gomendioak. Nik nahiago nuke bertako espezieren bat: haritza, ametza... Zeintzuk gomendatzen dizkiguzu?

Lukas Etxeberria (Amezketak).

Kaixo Lukas. Zerorrek aipatu dituzu bi aukerak. Batetik, lurrak berak eskatzen duena, eta ematen. Haritza eta gaztaina etengabe berritzen. Urtetan pinudia izanagatik altsuma berriak bota eta berea duten lurra berreskuratu nahian. Bestetik, ustiatzaileak, "basozaleak" nahi duena, etekin azkarraren bideari azkar ekin. Ez da azkarraren lana, ordea. Gomendatu dizkizuten koniferoak, hala ere, oso egokiak dira neure ustez. Insignisarenak egin du hemen, ez dugu gehiago ezagutuko. Bueltarik ez duen gaitza sartu zuten Bizkaiko herri batetik eta gorritzen-gorritzen, ahitzen ari dira pinu guztiak.

Basoa neurea balitz denetik jarriko nuke: haritz eta gaztainondo, sekuoia, Douglas izeia eta kriptomeria, baina baita lizar, hagin, gerezi makatz, pago, ametz... Nahasketak onura besterik ez dakar: konpetentziak, badakizu, makalena ere bizkortzen du eta etekina denboran etengabekoa bihurtzen da: orain batzuk, gero beste batzuk, su-egurra dela, biomasa dela, zur-egurra dela... Hori bai, adi nori eta nola saltzen diozuen egurra ateratzeko baime-na. Hortxe dago kokxa.



Douglas izeia,  
*Pseudotsuga menziesii*.

CRUSIER

## Arantzazu

TXINGURRIEKIN ELKARTZEAK on dagien landareen artean *Acacia* generoko espezie batzuk badira Amerikan. *Acacia collinsii* bezalako benetako akaziak, ez geure sasiakazia, *Robinia pseudoacacia*. Elkar mainatuz, akaziek elikagaiak ematen dizkiete txingurriek eta hauek landareak zaindu, babestu eta kontu egingo dituzte.

Akaziak bere babeserako ditu arantzak, galantak arantzak, eta txingurriek arantza horiek zulatu eta mamia jango diote. Horrela, arantza lehortu eta gogorrago egingo da, animalia belarjaleetatik zuhaitza hobeto babestuz. Era berean, hustutako arantza horietan bertan ostatu hartuko dute txingurriek.

Zazpi cm<sup>3</sup> dute, gutxi gehiago, arantza zulook eta 30.000 inguruko txingurri hiria osatzeko adina arantza bereganatuko dute. Landarea ederki zainduko dute, inguruak etengabe patruilatuz. Beste intsektuek, onddoek, landare igokariak... elorrio dute

akaziarengana hurbilduz gero. Zuhaitzaren enborraren bueltan lurra ondo izakituta, inongo landarerik gabe garbi mantentzen dute. Akaziak, ordainetan, mantenu osoan izango ditu txingurriak, majo elikatuta. Nola gainera! Zuhaitz gehienena bezala, akaziaren ahulgunea hostoa da. Biguna, hozkadaka erraz erauztekoa, gaitza erraz sartzekoa... Bada hortxe, hostoetan jarriko dizkio akaziak txingurriari haien zaintzaren ordainetako txerri-muinak, eta ez nolana-hikoak! Hostoaren txortenean eta muturrean garatzen dituen lupu edo kokkorretan nektarra, bestelako karbohidratoak eta koipeak pilatzen ditu landareak, txingurrien gozagarri.

Arantzetan txingurriak dituzten akaziak, ez dituztenak baino lasaiago bizi dira. Adibidez, belarjaleengandik babesteko fenolak eta tankerako gai gutxiago ekoizten dute.



*Acacia collinsii*.

DE.ACADEMIC.RU